1981ko Uztailaren 12an inskribaturiko eta Erregistro zenbakia 1372 duen, irabazteko asmorik gabeko INDAUTXUKO “BEATO GARATE” - BEGOÑAKO ANDRA MARI IKASTETXEKO, IKASLEEN GURASO ELKARTE KATOLIKOAREN ESTATUTUAK, Euskal Parlamentuak onartutako, Euskadiko Autonomia Estatutuan eta indarrean dagoen gainontzeko arautegian 9 eta 10.13 artikuluetan finkatutako, Otsailaren 12ko 3/1988 Elkarteei buruzko Legeak eta Martxoaren 22ko 1/2002ko, Elkarteak Erregulatzeko Eskubidearen Lege Organikoak ezartzen duenaren arabera izan dira aldatuak.

Aipatutako Elkarteak honako Estatutu hauek jarraituko ditu beti ere Elkarteei buruzko Legea eta Euskadiko Komunitate Autonomoko Guraso Elkarteak erregulatzeko Otsailaren 10ko 66/1987 dekretuaren aurkakoak ez badira. Legearen edo/eta Estatutuen aurkakoak ez diren gobernu organoek adostutako akordioetatik eta izaera osagarria izango duen Eusko Jaurlaritzak onartuko dituen araudi mailako erabakietatik ere zuzendua izango da.

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. Atala

Elkarte honen helburuak honako hauek dira:

- a) Gurasoei, beraien seme-alaba edo apopiloen hezkuntzaren inguruan laguntza eman, orientatu eta estimulatu.
- b) Ikastetxeko, ekintza hezgarrietan partehartu.
- c) Ikastetxeko gestioan, ikasleen gurasoak partehartzera bultzatu.
- d) Era berean, Elkarte honen helburuak ere izango dira ikasle eta gurasoentzat onuragarriak gertatuko diren ekintza hezigarri-osagarrien antolakuntzak. Horien artean, Euskal Hizkuntza eta kulturaren alde zuzendutakoak eta indarrean dagoen arautegia errespetatuz, Estatutuetan horrela ezarritakoak bere gain hartzen dituenak.
- e) Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak seinalatzen duen, Ikastetxearen izaera bermatu.

Elkarteak, bere helburuak betetzeko honakook egin ahal izango ditu:

- 1) Bere helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako ekonomi ekintzak gauzatzea.
- 2) Era guztietako ondasunak eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta hitzarmenak egitea.
- 3) Nolanahiko ekintzak burutzea, beti ere legeekin eta bere estatutuekin bat etorritz gero.

ELKARTEAREN EGOITZA

3. Atala

Elkarte honen egoitza nagusia BILBOko Doctor Areilza kalean, 32 zenbakian egongo da. Elkartek, horretaz gain, beste tegirik eduki dezake, bai Autonomi elkartean eta bai kanpoan ere, Batzar Orokor Bereziak horrela erabakiz gero. Elkarte -egoitza edo Elkartearen beste tegiren bat tokiz aldatzeko erabakia Zuzendaritza- Batzordeak hartuko du, eta horrek Elkarte-Erroldari helbide berriaren berri emango dio.

LURRALDE-EREMUA

4. Atala

Elkarte honen ekintzak BIZKAIako Probintziako lurralde eremuan gauzatuko dira nagusiki.

IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAU

5. Atala

INDAUTXUKO "BEATO GARATE" - BEGOÑAKO ANDRA MARI IKASTETXEKO, IKASLEEN GURASO ELKARTE KATOLIKOA izeneko Elkartea betirako eratzen da. Elkartea, Ohiz kanpoko Batzar Orokor Bereziaren erabaki bidez desegin ahal izango da soilik, VI Atalburuan esaten den bezala, edo legeetan jasotako arrazoiren batengatik.

BIGARREN ATALBURUA

ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIO-SAILAK

6. Atala

Elkartearen Zuzendaritza eta Administrazioaren ardurak honako ihardute-sailena izango dira:

- 1) Bazkideen Batzar Orokorra, ihardute-sail gorena bezala.
- 2) Zuzendaritza-Batzordea, zuzendaritzaren elkarreango ihardute-sail iraunkor bezala.

BATZAR OROKORRA

7. Atala

Bazkide guztiek osatzen duten Batzar Orokorraren bidez adieraziko dira bazkideen nahiak. Ohizko bilerak eta bilera bereziak egingo ditu.

8. Atala

Batzar Orokorraren Ohizko bilera egiteko deia gutxienez urtean behin egin beharko da: laugarren hiruhilabetekoan izango da, eta honako puntu hauek onartuko ditu: Elkartearen iharduketa-egitamu orokorra, aurreko urtean izandako gastu eta diru sarrerei dagozkien kontuen egoera-orria, hurrengo urteko aurrekontua, eta Zuzendaritza-Batzordearen Kudeaketa. Zuzendaritza-Batzordeak Batzar Orokorraren aztertarauekin bat eta haren kontrolpean ihardun beharko du beti.

9. Atala

Aurreko atalean jasotakoaren kaltetan gabe, Batzar Orokorrak ondoko erabakiak hartzeko ahalmena du:

- 1) Estatutuak aldatzeko, hurrengo atalean aurreikusi denaren arabera.
- 2) Zuzendaritza-Batzordea aukeratzeko.
- 3) Elkartea desegiteko, hala badagokio.
- 4) Beste Elkarte batzuekin Federakuntza edo Konfederakuntza osotzeko edo horietakoren batetik ateratzeko.

10. Atala

Batzar Orokorra Zuzendaritza-Batzordeak erabakitakoan bilduko da bilkura berezian, bere kabuz edota bazkideen herenak hala eskatuta. Bilkura eskatzeko arazoiak eta helburuak azaldu beharko dituzte. Dena den, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilera egin beharko da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkartea desegiteko.

11. Atala

Batzar Orokorrerako deiak, nahiz ohizkoak nahiz bereziak, idatziz egin beharko dira, eta bilera-tokia, eguna, ordua eta aztergaien zerrenda azalduko da bertan. Deia egiten den egunetik Batzarra lehenengo aldiz egingo den egunera bitarteko epea gutxienez hamabost egunekoa izango da. Batzarrerako bigarren deia egitea egokituko balitz, egingo diren bi batzarren artean gutxienez hamabost minutu igaro beharko dute.

Iragarkian bigarren Deialdi-eguna jasota ez balego, batzar-eguna baino zazpi egun lehenago azaldu beharko da noiz izango den.

12. Atala

Batzar Orokorrak, bai Ohizkoak eta bai Bereziak, balioz osoturik geldituko dira bazkideen erdia baino gutxienez bat gehiago bermatuz edo ordezkorik egonez gero, lehenengo deialdian eta edozein delarik ere bertaraturiko bazkideen kopurua bigarren deialdian.

Bazkideek, beste edozein bazkideren gain utzi dezakete beraien ordezkotza Batzar Orokorretan parte hartzeko. Esku hori, idatziz egin beharko da eta Batzarretako Idazkariari emango zaio bilera baino gutxienez hamabost minutu lehenago. Elkartearen egoitza dagoen herrian bizi ez diren bazkideek ordezkaritza beste baten esku uzteko adierazten duen agiria postaz bidali dezakete.

13. Atala

Batzar Orokorren erabakiak, gehiengo boskaz hartuko dira.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. Atala

Zuzendaritza-Batzordea, honako hauek osatuko dute: Lehendakari, Lehendakariorde, Idazkari eta Diruzain batek eta Zuzendaritza Batzordeak adosten dituen seitik hamabira bitarteko bokaleek.

Gutxienez, hilean behin, eta Elkartearen ekintzak bideratzeko beharrezkoa den hainbat alditan bildu beharko dira.

15. Atala

Zuzendaritza-Batzordeko kideren bat bilera horietara hiru aldiz jarraian edo bizbatean bost aldiz joaten ez bada, dagokion kargua utzi beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen behintzat.

16. Atala

Zuzendaritza-Batzordeko kargudunak, Batzar Orokorrak hautatuko ditu eta lau urtetarako izango dira, Batzordeak berak ezeztatu ezean eta behin eta berriz hautatu ahal izango dira hauek. Kargu horiek bi txandatan berrituko dira; lehenengoan karguen %50a eta bigarrean gainontzekoak berrituko dira.

17. Atala

Zuzendaritza-Batzordekoa izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Estatutuetan esaten den eran izendatua izatea.
- b) Elkarteko bazkidea izatea.
- c) Adinez nagusia edo adinez txikia izanez gero bere burujabe izatea, eta herritar eskubide guztiak izatea.

18. Atala

Zuzendaritza-Batzordekide kargua, behin Batzar Orokorrak izendatu ondoren, onartutakoan edo jabetzerakoan hartuko da.

Karguak ordainik gabekoak izango dira. Dena den, Batzar Orokorrak egun-sariak eta gastuak ordaintzea erabaki dezake.

19. Atala

Zuzendaritza-Batzordeko kideek honako kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- a) Agintealdia betetzerakoan.
- b) Kargua uztean.
- c) Bazkide izateari utzitakoan, edo ezintasun-zioak dituenean.
- d) Batzar Orokorrak ezeztea erabakiz gero, Estatutu hauetako 16. atalean jarritakoaren arabera.
- e) Heriotzaz.

a) puntuan agertzen dena kargua uztearen arrazoia baldin bada, Zuzendaritza-Batzordeko kideek jarraitu beharko dute lehenengo Batzar Orokorra egin arte. Batzar horrek aukeratuko ditu kargudun berriak.

b), c), d) eta e) puntuetan agertzen dena baldin bada arrazoia, Zuzendaritza-Batzordeak berak hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onartu ala ezeztu. Ezezkoa bada, dagokion izendapena egingo da.

Batzorde honen osakeran gertatutako aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen eroldari.

20. Atala

Zuzendaritza-Batzordearen betebeharrak hauek dira:

- a) Batzar Orokorraren aztertarauen arabera eta bere esanetara, Elkartearen ohizko kudeaketaz arduratzea.
- b) Elkartek aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c) Gastu eta sarreren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari, onar dezan, aurkeztea.
- d) Batzar Orokorraren biletarako aztergai-zerrenda egitea, eta ohizko Batzar Orokorren eta berezien deialdiak erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horretarako behar diren neurriak hartzea.
- f) Batzar Orokorrak berez izendatuta ez duen beste edozein eginkizun.

21. Atala

Zuzendaritza-Batzordeak, Lehendakariak eta, hala balekio, lehendakariordeak erabakitako bakoitzean egingo ditu bilerak, euren kabuz nahiz hiru batzordekideek eskatuta. Bileretako buru lehendakaria edo, bertan ez balego, lehendakariordea izango da eta biak faltako balira, berriz, Batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak onartu beharko ditu. Horretarako, Batzarrean gutxienez batzordekide kopuruaren erdiak egon beharko du.

Idazkariak bilera-agiriak egingo ditu. Agiri horiek dagokien Liburuan idatziz jasoko dira.

BAKARREANGO IHARDUTE-SAILAK

LEHENDAKARIA

22. Atala

Lehendakariak Elkartearen legezko ordezkaritza beregain du. Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak aurrera eramango ditu. Era berean, aipatutako bi sail horien buru izango da.

23. Atala

Zuzendaritza-Batzordeari edo Batzar Orokorri oso-osoan ez dagozkien aginpideak ere lehendakariaren esku egongo dira, batez ere honako hauek:

- a) Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar Orokorrak egiten dituzten bileren deiak egin eta bukatutzat ematea; bai batean eta bai bestean sortzen diren eztabaidak zuzentzea; eta bozka berdinketa gertatuz gero, bozka ebazleaz erabakitzea.
- b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza-Batzordeari proposatzea eta aldi berean alkartearen zereginak bultzatu eta zuzentzea.
- c) Balioz erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortu daitezkeen premiazko arazoei irtenbideak ematea, eta Zuzendaritza-Batzordeari lehenengo bilkuran horien berri ematea.

LEHENDAKARIORDEA

24. Atala

Lehendakariordeak Lehendakariari lagunduko dio, eta honen aldibaterako ezintasuna balego, ordezkatu egingo du berau. Era berean, Lehendakariak berak emandako ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARIA

25. Atala

Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak hartu eta bideratzea, fitxategia eta Bazkideen Errola-Liburu zaintzea, eta agiri-Liburuaren zaintza eta idazketaren ardurua izatea.

Era berean, Elkarteen arloan indarrean dauden legezko erabakiak bete daitezen arduratuko da, Erakundearen agiri ofizialak zainduz, Elkarte-liburu eta agirien edukia

egiaztatuz eta Zuzendaritza-Batzordearen hautaketari eta elkarte-egoitza aldatzeari buruzko beharrezko jakinerazpenak, dagokion agintaritzarengana bideratuz.

DIRUZAINA

26. Atala

Diruzainak, egindako sarrera eta ordainketen berri emango du, diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoeraren berri emango du. Guzti horiek, Zuzendaritza-Batzordearen aurrean aurkeztu behar dira, eta honek Batzar Orokorrari, onartu ditzan aurkeztu.

HIRUGARREN ATALBURUA

BAZKIDEAK; ONARPEN-BIDEAK ETA MAILAK

27. Atala

Elkartekide izan nahi eta honako baldintza hauek betetzen dituzten guztiak izan daitezke elkarteko bazkide:

- Adinez nagusia edo adinez txikia izanez gero bere burujabe izatea.
- Beraien seme-alabak, Indautxuko Begoñako Andra Mari Ikastetxean ikastea.

28. Atala

Elkartean sartu nahi duenak, bere eskabidea Lehendakaritzari idatziz aurkeztu beharko dio. Lehendakariak, horren berri Zuzendaritza-Batzordeari emango dio eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena Elkartean onartu ala ez. Dena den, Batzar Orokorrari goradeia egiterik ere izango da.

29. Atala

Batzar Orokorraren erabakiz, Elkarteak Ohorezko Bazkideak izendatu ahal izango ditu bazkide izateko baldintza guztiak bete arren, elkartearen helburuak betetzeko bertaratu ezinezko lagunak.

Bazkide hauek, Ohorezko dira soilik, eta beraz ez dira legezko bazkide, ez dute Elkarteko Zuzendaritza eta Administrazioarako ihardute-sailetan parte hartzeko eskubiderik ez eta inongo betebeharririk ere.

BAZKIDEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

30. Atala

Bazkide orok, honako eskubide hauek ditu:

- 1) Elkarte-legearen edo estatutuen kontrako erabaki eta iharduketak ihardeztekoa, aurkatutako erabakiaren edukia ezagutu edo ezagutzeko aukera egunetik hasi eta 40 eguneko epean.
- 2) Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarrera eta gastu-kontuen egoera, eta Elkartearen ekintzen garapenen berri une oro jakitekoa.
- 3) Batzar Orokorretan hitz egiteko eta bozka emateko eskubidea erabiltzekoa, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatekoa.
- 4) Elkarteko Estatutuon arabera, Elkarteko Zuzendaritza-sailetan parte hartzekoa eta sail horietako hautagai nahiz hautesle izatekoa.
- 5) Indarrean dagoen legedian aurreikusitako Bazkide-zerrendan agertzekoa eta Elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzekoa.
- 6) Estatutuen eta, egonez gero, Barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-sailei eskakizunak eta kexak aurkeztekoak.
- 7) Elkartearen talde-ekintzetan parte hartzekoa, eta bazkideen erabilerarako gauzak erabiltzekoa (liburutegiak, elkarte-egoitza, e.a.) Zuzendaritza-Batzordeak kasuan kasu, erabakitako moduan.
- 8) Zigortze-neurriak hartu baino lehen, bazkideak idatziz adieraziak izatekoak eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiak azalduak izatekoa. Neurri horiek hartzeko arrazoiak, bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean oinarritu daitezke soilik.

31. Atala

Bazkideen betebeharrak honako hauek dira:

- a) Elkartearen helburuak lortzeko lankidetzara eraginkorra egitea.
- b) Batzar Orokorrek ezarritako bazkide-saria ordaintzea, gastuak ordaindu daitezkeen.
- c) Estatutu hauek eta Elkartearen zuzendaritza-sailek balioz hartutako erabakiak bete eta horiei men egitea.

ZIGOR-ARAUAK

32. Atala

Estatutuak edo Batzar Orokorrek nahiz Zuzendaritza-Batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriz hausteagatik Zuzendaritza-Batzordeak bazkideak zigortu ahal izango ditu.

Hamabost egunetik hilabetera arte eskubideak kentzetik, Elkartetik betirako banatzerainoko zigorra izan daiteke, beti ere 34 eta 37 atalen arabera, biak barne.

Horretarako, Elkarteburuak zigorrak izan daitezkeen jokabideak aztertzeko erabakia hartu ahal izango du. Azterketa horiek, Idazkaritzak eramango ditu aurrera, Zuzendaritza-Batzordeari neurri egokiak hartzeko proposatuko diolarik. Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza-Batzordeak izango du, eta zigorra ezarri aurretik arazoaren kaltetuak adierazitakoa kontutan hartu beharko da.

Aipatu dugun erabakiaren aurka, Batzar Orokorretara joko da, beti ere arrazoiak emanda eta 30.1 atalean oharmandako ekintzen kaltetan gabe.

BAZKIDETASUNA GALTZEA

33. Atala

Hauek dira Bazkidetza galtzeko arrazoiak:

- 1) Heriotza.
- 2) Bazkidea borondatez aldentzea.
- 3) Zuzendaritza-Batzordeak erabakitako zigorra dela eta, Estatutuotan, Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar-Orokorrak balioz hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausteagatik.

34. Atala

Bazkideren bat aurreko atalean aipatutako azkeneko kasuan aurkituz gero, Elkarteburuak Idazkariari aurretiazko eginbide batzuk egin ditzan agindu diezaiokie horien berri egokia lortzearen. Eginbide horiek ikusita, Elkarteburuak ekintza bertan behera uztea, zigor-espedienteari ekitea -32. Atalean aurreikusitako eran-, edota elkartetik egozteko espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.

Azken kasu horretan, Idazkariak, ekintzak egiaztatu ondoren, leporatzen zaizkion salaketen berri emanez, idatzi bat bidaliko dio dagokionari. Honek, salaketa horiei erantzuteko bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, beti ere, Zuzendaritza-Batzordeko lehenengo bilkurara eramango du kasua eta bertan erabaki egokia hartuko da. Horretarako Batzarkideen erdiko "quorum"-a beharrezkoa izango da.

35. Atala

Elkartetik kanporatzeko erabakia dagokionari jakinaraziko zaio eta, era berean, egingo den hurrengo Batzar Orokor Berezian errekurtsioa aurkeztu dezakeela azalduko zaio. Batzar horretarako deirik hiru hilabeteren barruan egiten ez bada, aipatutako errekurtsioa nahikoa izango da batzarra egiteko. Bien bitartean, Elkartearen lehendakariak dagokionari, bazkide eskubideak kentzea erabaki diezaiokie, eta Zuzendaritza-Batzordeko kide bada, kargu hori utziarazi egin beharko dio.

Kanporatzeko espediente batzar Orokorri aurkeztuz gero, Idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza-Batzordeak Batzar Orokorri, dagokionak aurkeztutako idatziaren eta ekintzen berri zehatza eman ahal izan diezaion eta honek beharrezko erabakia har dezan.

36. Atala

Kanporatzeko erabakia -arrazoiak emanda beti ere-, dagokionari jakinaraziko zaio eta honek, eskubideaz baliatuz, bere ustez aipatutako erabakia Legearen edo Estatutuen aurkakoa bada Auzitegietara jo ahal izango du.

37. Atala

Berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako, Bazkideren bati kanporaketaren berri ematen bazaio, hehenik, bete gabe dituen betebeharrak bukatzeko eskatuko zaio, hala badagokio.

LAUGARREN ATALBURUA

SORTZE-ONDARE ETA AURREKONTU-ARAUAK

38. Atala

Elkartearen gaur egungo ondarea 14.912,41 Eurotakoa da.

39. Atala

Elkarteak, bere ekintzak aurrera eramateko, honako diru-baliabide hauek izan ditzake:

- a) Zuzendaritza-Batzordeak ezarritako sarrera-kuotak.
- b) Batzorde berak erabakitako aldizkako kuota.
- c) Duzkan ondasunetatik ateratzen dituen ekoizpenak eta dagozkion eskubideak. Baita, legez hartu ditzakeen diru-laguntza, ondare eta uzkontzak ere.
- d) Estatutuen helburuak kontutan harturik, Zuzendaritza-Batzordeak erabakitako bidezko ekintzek dakartzaten irabaziak.

Elkartearen diru-baliabideak, ez dira inoiz kideen artean banatuko.

BOSTGARREN ATALBURUA

ESTATUTUEN ALDAKETA

40. Atala

Estatutuen aldaketa Zuzendaritza-Batzordearen ekimenez edota bazkideen herenak eskatuta Zuzendaritza-Batzordeak hala erabakiz gero egin daiteke. Dena den, bi kasuetan Zuzendaritza-Batzordeak hiru bazkideek osatutako lantalde bat izendatuko du aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo horrek Zuzendaritza-Batzordeak ezarritako aztertaruei jarraitu beharko die eta Batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

41. Atala

Aldaketa-egitasmoa dagokion epe barruan idatziz gero, Elkarteburuak egingo duen lehenengo Zuzendaritza-Batzordearen aztergai-zerrendan sartuko du. Batzorde horrek egitasmoa onartu, edo berriz ere lantaldeari itzuliko dio berriz ere aztertzeko.

Egitasmoa onartuz gero, Zuzendaritza-Batzordeak hurrengo Batzar Orokor Bereziaren aztergai-zerrendan sartzea edo horretarako propio bilerarako deia egitea erabakiko du.

42. Atala

Batzarrerako deiarekin batera estatutuen aldaketa testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa-proposamenen berri, Batzar Orokorrari emango zaio, beti ere batzarra egin baino zortzi egun lehenago Idazkaritzan jaso badira.

Zuzenketak banaka zein taldeka egin daitezke. Idatziz egin beharko dira eta beste testu baten aukera ere izan beharko dute.

SEIGARREN ATALBURUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZENTARAKOA

43. Atala

Elkartea honako hauengatik desegingo da:

- 1) Bazkideen nahiaz. Nahi hori horretarako bildutako Batzar Orokorrean azaldu beharko da eta bertan daudenetatik gehiengo absolutuaren boztak jaso beharko ditu.
- 2) Herri-Legeen Bildumako 39. Atalean azaltzen diren arrazoiez.
- 3) Epai bidez.

44. Atala

Elkartea deseginez gero, erabakia hartu duen Batzar Orokorrak kitapen-batzordea izendatuko du. Batzorde hori, Zuzendaritzako Batzordekideek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

Bazkideekiko eta besterekiko Elkartearen zorrak ordaindu ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, Indautxuko Begoñako Andra Mari Ikastetxeko laguntza eta misiolari lanei emango zaie.

ZAZPIGARREN ATALBURUA

ESKOLA LAGUNTZA FONDOA

45. Atala

Ikastetxeko ikasleak laguntzeko asmoz, Eskola Laguntza Fondoa sortu da. Diru laguntza, familiako ezbehar baten ondorioz eta hala eskatuta, ikaskeek ikasketak jarrai dezaten euskarri moduan emango da.

Era berean, alde espiritual eta kulturalak eta kirol aldeen heziketa osatzean laguntza ematea helburu izango du.

46. Atala

Fondoaren ardurapean, eman ahal diren laguntzak ondokoak dira:

- 1) Hileko eskolako diruzko ordainketaren zati bat edo osoa ematea.
- 2) Liburu eta materiala ematea.
- 3) Ikastetxeko matrikula ordaintzea.
- 4) Zuzendaritza-Batzordeak onartutako gainontzeko laguntzak.

47. Atala

Diru laguntza hauek jasotzeko eskubidea izateko, ikasleen guraso zein tutoreek, Elkartean sartzeko onarpena idatziz eskatzea eta kuotak normaltasunez ordaindu izana beharrezkoa dute.

48. Atala

Diru laguntzak jasotzeko eskubidea izateko baldintzak hauek dira:

- a) Laguntza bideratu duen gertaera, ikaslea Ikastetxean sartu eta ondorengo izatea.
- b) Laguntzak, ez dira ikasleen noten arabera emango.
- c) Gertaera, gurasoen edo tutoreen baten heriotza baldin bada eta familiak beste herri batetara etxebizitzaz aldatzea erabakitzen badu, Eskola laguntza Fondoak heriotzaren hurrengo urteko kurtsoan emango dizkio 46. Ataleko 1, 2 eta 3 puntuetan agertzen diren kontzeptuen ondorioz Indautxuko Begoñako Andra Mari Ikastetxeari ordaindu izan dizkionak. Onuradunak, finkatzen duen bizilekuan, kurtso berean jasoko du diru laguntza. Horretarako, Zuzendaritza-Batzordeari ikaslearen ikasketen ordain agiriak eman beharko dizkio.

49. Atala

Laguntzak, gertaeratik hiru hilabetetara emango dira. Horretarako, kaltetuak aurretiazko eskakizuna Zuzendaritza-Batzordeari egin beharko dio eta gertaeraren egiaztagiriak ere eman beharko dizkio. Behin laguntza eman, gertaerak edo aurkeztutako agiriak faltsuak direla frogatzen bada, Elkarteari jasotako kopuruak itzuli beharko zaizkio.

Laguntza jasoteko eskubideaz jarraitzeko, doakionak, Zuzendaritza-Batzordeak eskatutako agiriak hiru hilabeteko aurretiaz aurkeztu behar izango ditu, diru laguntza eman zireneko egoera mantentzen dela egiaztatzeko helburuarekin.

50. Atala

Guraso zein tutoreek, laguntzei borondatez uko egin diezaiekete. Adinez txikikoek, ezin izango dute ezetza esan, haien baimenik gabe.

Hala ere, Elkartearen kideak, Zuzendaritza-Batzordeari laguntzaren jarraipena eskatu diezaioke gertaera frogagarria balitz.

51. Atala

Laguntzaren eskubidea kasu hauetan galduko da:

- a) Onuradun ikaslearen heriotzaren ondorioz.
- b) Zuzendaritza-Batzordeak gertaera behatuko balu, bere ikasketak burutzen dituen Ikastetxetik, kanporatze espediente akademikoaren ondorioz.

AZKEN ERABAKIAK

LEHENENGOA.- Zuzendaritza-Batzordea, Estatutu hauetan azaltzen diren aginduak ulertarazi eta Estatutu horien hutsuneak beteko dituen ihardute-sail aginpideduna izango da. Elkarteei buruz indarrean dauden legezko araupean beti, eta Batzar Orokorrari, onar dezan, egindako guztiaren berri emanaz.

BIGARRENA.- Estatutu hauek, Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar Orokorrak bakoitzak berari dagokion aginpide-esparruan, balioz hartzen dituzten erabaki bidez eta Bostgarren Atalean oharmandakoarekin bat etorririk aldatuko dira.

HIRUGARRENA.- Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak Barne-araudi bat onartu ahal izango du. Horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetako aginduak aldatuko.